

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 3/2014

IDAZKI ANONIMO BATEN BIDEZ AURKEZTUTAKO GAIARI BURUZKO ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAREN (...) SAILBURUORDETZAREN ZERBITZU JURIDIKOEI ERAGITEN DIEN LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEARI DAGOKIONEAN.

1.- 2013ko martxoaren 6ko idazki anonimo baten bidez, dossier bat igorri zioten Etika Publikorako Batzorde honi (aurrerantzean, EPB). Dossier hori (...) Sailak gauzatutako jardueri buruzkoa da, (...) Sailburuordetzara atxikitako abokatuen kolektiboari dagokion lanpostuen zerrenda (aurrerantzean, LP) aldatzeko jardueri buruzkoa alegia, eta batzorde honi igorri zioten Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean, EJK) arabera azter daitezen jarduera horiek.

2.- Idazki horrek, halaber, EPBri eskatzen dio izapideetan dagoen espedientea berehala geldiaraz dezatela eska diezaiela eskumena duten organoei gai horren gaineko erabaki bat hartzen duen arte.

ERABAKIA:

I. AURREKARIAK

1.- EJK, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei, haien jarduera publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Xedea da, hain zuzen, integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudia zaintzea, haren eraginkortasuna indartzea, eta bermatzea herritarrek erakundeengan duten konfiantza ez dutela galduko.

2.- EJKk bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horien esparruan, jokabide-, jarrera- eta portaera-katalogo zabal bat biltzen da kodean, eta, hain zuzen ere, katalogo hori hartu behar du EJK-k erreferentzia-parametrotzat, kodea haien borondatez onartu duten kargu publikoek mahai gainean jartzen dituzten auziei eta zalantzei erantzun emateko.

Azken alderdi horri dagokionez, kodearen 16.3 atalak honako hau dio: "Etika Publikorako Batzordea izango da oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du."

II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AUZIA, IRITZIA EMAN DEZAN

1.- Idazki anonimo baten bidez, 190 orriko dossier bat helarazi zaio EPBri, (...) Sailak gauzatutako jardueri buruzkoa, (...) Sailburuordetzara atxikitako abokatuen kolektiboari dagokion LP aldatzeko egindako jardueri buruzkoa alegia. Dokumentazio hori igorri dute, EJKren arabera azter daitezten jarduerak.

Dossierrean aipatzen den LPren aldaketa da, funtsean, Zerbitzu Juridiko Zentraletako Abokatua lanpostua betetzen duten zortzi langileren destinoa aldatuko litzatekeela, horiek Gasteiztik Bilboko Ordezkaritza igorriko bailirateke, Defentsa eta Jakinarazpenetarako Lurralde Bulegora. Destino-aldaketak zer langileri eragingo dien zehazteko, egun indarrean dagoen lan-baldintzen akordioan jasotako irizpideak jarraitu dira.

2.- Idazki anonimoak eskatzen du saileko organo eskudunei eskatzeko izapideetan dagoen espediente berehala geldiarazteko, EPBk irizpena eman arte.

3.- Idazkiarekin batera aurkeztutako dossier luzea honakoez osatuta dago: kazetaritza-estilo nabaria duen kontakizuna, 8 orrialdekoa –horren izenburuak ("Etika eta Jokabide Kodearen kontrako beste eraso bat: eskandalua Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridikoetan") antz handiagoa du prentsako titular batekin *stricto sensu* administrazio-salaketa batekin baino–; 4 orrialdeko "Laburpen-ohar" bat, gertakari berak azaltzen dituen baina modu laburragoan; 3 orrialdeko "Kronograma" bat; eta hamabi dokumentu-eranskin, eta horien artean era askotariko materialak, hala nola, dagokion espediente hasten duen idazkia, sailaren egitura organikoa onartzen duen dekretua, Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako EJK argitaratu zeneko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, eta zenbait fotokopia EPBk 6/2013 espediente-zenbakiarekin erregistratutako gaiari erantzuteko 2013ko azaroaren 4an adostutako erabakiaren inguruan idatzizko prentsak argitaratutako albiste batzuk jasotzen dituztenak.

Hori aztertuz gero, garbi ikusten da txostena, hasiera batean behintzat, ez zela prestatu EPB honi igortzeko. Horrela izan balitz, ez luke EJKren kopia bat jasoko, ez eta batzordeak berak ebatzitako lehenengo kasuetako batekin lotutako prentsako albisterik ere.

4.- Legezketasunarekin eta egokitasunarekin lotutako zenbait arrazoi aipatzeaz gainera – organo honi ez dagokio horiek kontuan hartzea–, dosierrari hasiera ematen dion kontakizunak eta ondorengo "Laburpen-oharrak" erreferentzia esplizitua egiten diote Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako EJKri. Lehenengoak atal oso bat erabiltzen du, 3. atala zehazki –"Etika eta Jokabide Kodearen gaineko eragina"–, azaltzeko zergatik uste duen dokumentuaren egileak azaldutako deskribapenak kontraesanetan daudela haren 5.2.4 atalarekin; kargu publikoek eta parekatuek jarraitu beharreko onestasanaren eta desinteres subjektiboaren printzipioei buruzkoa da atal hori.

5.- Kontakizun anonimoaren egileak ulertzen du testuan aipatzen diren neurriak "azaldutako printzipioaren kontrakoak" direla atal horretan, eta "beraz, zuzenean erasotzen dutela Etika Kodean jasotako agindua". Eta hori guztia, kontuan hartuta zein izan diren salaketan aipatzen den prozeduraren sustatzaileak, bultzatzaileak, informatzaileak eta erabakiak hartu dituzten organoak, ezin delako esan ez dagoela susmorik edo zalantzarik ezen espedientean hartuko diren ebazpenek edo erabakiek mesede egingo dietela horiek hartzen dituen pertsonari edo haren senideei, lagunei edo kideei, edo, hala badagokio, erabakia nolabaiteko interes partikularren mende egon daitekeela.

III. KONTSIDERAZIOAK

1.- Gai hau aztertzean egin beharreko lehenengo gogoeta formala da, eta prozedurarekin lotutakoa. Erabaki honen aurrekarietan esan dugun eran, anonimoa da EPB honen esku-hartzea eskatzen duen idazkia. Beraz, hasteko, erabaki behar da ea egokia den aurkeztu diren gaiak edo kasuak izapideetara onartzea, igortzen dituen pertsona identifikatu gabe.

EJKk ez du arau espezifikorik ezartzen salaketa anonimoen gainean. Ez ditu baimentzen, baina ezta espresuki debekatzen ere. Baina kontuan hartuta EPB honen xede nagusia dela kargu publikoek eta parekatuek EJKren arabera dagozkien balioak eta printzipioak jarraitzen dituztela bermatzea, badirudi ezen, hasiera batean, derrigorrean aztertu behar ditugula horien kontrako izan daitezkeen jokabideen edo jardueren berri eman dezaketen zantzu eta albiste guztiak. Informazio garrantzitsuak alde batera utziz gero horiek eman dituen nor den ez jakiteagatik, zigorgabetasun-egoeran utz litezke EJKren kontrako zenbait jarduera, Eusko Jaurlaritzako kargu publikoen eta parekatuen onestasanaren eta zintzotasunaren gainean irudi negatiboa sor dezaketenak, baina, halere, EPB honek aztertuko ez lituzkeenak inork ez diolako haien berri eman izenpetutako salaketa baten bidez.

Edonola ere, bi ohar eman behar dira oinarritzko jarraibide hau zehazteko:

- a) Bistakoa denez, salaketa anonimoetan ezin zaio salatzaileari eskatu hasieran aurkeztutako informazioa osa dezan, eta, beraz, ezinbestekoa da hasierako dokumentua garbia eta zehatza izatea, eta hori ez oinarritzea zehaztu gabe adierazten diren jardueretan eta zehaztu gabe aipatzen diren eta nekez identifikatu daitezkeen

egileei buruzko aipamen abstraktu eta lausoetan. EPB ez da fiskaltza unibertsal moduko bat, eta ez dago gaituta ikerketa mugagabeak egiteko Eusko Jaurlaritzako eta haren tresna den sektore publikoko kargu publikoen eta parekatuen jarduera erreal edo balizko jarduera guztien egokitasun etikoaren inguruan, horien berri zuzenean izan, edo zeharka izan, edozein bitartekoren bidez.

- b) Salatzaile batek modu anonimoan jardutea erabakitzen badu, *ipso facto* uko egiten dio ondoren alegazioak aurkezteko aukerari, EPB honek sustatutako jarduerak prozedura kontraesankor bat sorrarazten badute ere.

2.- Dagokigun kasuan, idazki anonimoarekin batera aurkezten den dosierrean jasotako dokumentazioa, adierazi denez, oso heterogeneoa da; era berean, adierazi denez, EJKren kontraktotzat jotzen diren gertakariei eta jokabideei buruzko kontakizun nagusiak gehiago ematen du kazetaritza-kronika bat, irakurlearengan Eusko Jaurlaritzaren sail baten jarduerari buruzko iritzi jakin bat sorrarazteko sortua, salaketa administratibo bat baino. Izan ere, salaketa administratibo baten xedea izango litzateke al bait zehatzen identifikatzea zeintzuk diren EJKn jasotako balizko kasuetako jokabideak eta egileak. Dosierra osatzen duten 190 orrietan pertsona ugari aipatzen dira, eta hainbat jarduera deskribatzen, baina zehaztasun handiagoz adierazi beharko litzateke zer espero den EPB honek aztertzea eta ebaztea.

Alabaina, haren edukia nahasi samarra izanda ere, hori irakurrita aurki daitezke –behar bezala egiaztatu ostean, noski– EPB honen esku-hartzea justifika dezaketen datuak. Gainera, idazki anonimoan ez denez aipatzen desagertu daitekeen edo ulertezina den jarduera bat, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baitan izapidetutako administrazio-prozedura bat, eta, beraz, erraz dokumenta daitekeena, dosierrean jasotako informazioa ez balitz osoa edo nahikoa edo partziala balitz kasua objektiboki aztertu ahal izateko, beti osatu ahal izango lirateke hutsuneak dagokion administrazio-organoari espediente osoa eskatuz.

3.- Esandakoa kontuan hartuta, esan dezakegu ezen, nahiz salaketa anonimoak ez diren beti edo kasu guztietan aintzakotzat hartu behar, kasu honetan, kontuan hartuz zein den idazkiarekin batera aurkezten den dosierrean edukia eta salaketaren xedea –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren baitan izapidetutako administrazio-espediente bat–, komenigarria da kasua ezagutzea, eta ez baztertzea aitzakia bakar modura adieraziz ez dakigula nor den salatzailea.

4.- Idazki anonimoarekin batera aurkeztutako dosierrean jasotako dokumentazioa aztertuta, erraz ikus daiteke EPB honek bazuela salaketan aipatzen den prozeduraren berri: arestian adierazi denez, dagokion LZ aldatzea Zerbitzu Juridiko Zentraletako Abokatu lanpostuko zortzi langile Gasteiztik Bilbora lekualdatzeko. Izan ere, prozedura hori dagoeneko aztertu da nolabait, Batzordearen idazkaritzan erregistratutako bi kontsultari jarraiki: 7/2013 eta 8/2013 espediente-zenbakiekin erregistratu ziren horiek, eta behar bezala ebatzi ziren 2013ko abenduaren 27an eta abenduaren 4an onartutako erabakiekin, hurrenez hurren.

Alabaina, nabarmentzekoa da ezen, idazki anonimoarekin batera aurkezten den dosierra luzea eta zabala izanik ere, ez direla EPBren erabaki horiek aipatzen. Nahiz eta dosierri hasiera ematen dion gertakari-kontakizunean bi kontsulta horiek egin zituzten pertsonen buruzko

zenbait aipamen egon –eta, batzuetan, hori EJKren kontrakoa izan litekeela ere adierazten da–, ez da aipatzen duela hilabete batzuk EPB honen esku-hartzea jaso zutenik, eta erabaki bana jaso zutenik aurkeztutako kontsultei erantzuteko.

5.- Behin dokumentu-hutsune hori egiaztatuta –ezin esan horrek garrantzirik ez duenik gauzatu behar dugun lanerako–, hasteko, EPBk idazki anonimoaren xede den gaiari buruzko espediente osoa eskatu dio sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari. Izan ere, kasuari buruzko dokumentazio guztia edukitzea ezinbestekoa da zehatz-mehatz jakin ahal izateko zer gertatu den, eta, ondoren, jardun duten pertsonen gauzatutako jardueren egokitasun etikoa balioesteko, behar den zorrotasunez.

6.- Sakon aztertuta (...) Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak 2014ko martxoaren 27an EPB honi igorritako espediente osoa, honako hau egiaztatu dugu:

a) Idazki anonimoarekin batera aurkeztutako dossierrean jasotako informazioa partziala eta osatu gabea da. Ikusi denez, ez ditu aipatzen EPB honek 7/2013 eta 8/2013 gaien inguruan hartutako erabakiak, eta, gainera, ez ditu jasotzen beste dokumentu garrantzitsu batzuk; haietatik, nabarmentzekoa da 9 orriko idazki bat, edukiagatik garrantzitsua, (...) Sailekoen Zerbitzu Zuzendaritzara 2014ko otsailaren 17an zuzendua; idazki horretan, prozedura sustatu zuten abokatuek gertakari eta arrazoi juridikoekin argudiatzen dituzte kontrakoek aurkeztutako alegazioen kontra.

b) Dossierrean baieztatzen denaren kontra, zeinak adierazten baitu prozedura gardentasunik eta parte-hartzerik gabe gauzatzen ari dela, espedientea izapidetzerakoan, gutxienez hiru bilera egin dituzte sailburuordetzako titularrak eta abokatuen kolektiboak –hala onartzen dute azken horiek 2014ko otsailaren 20an (...) sailburuari igorritako idazkian–, eta entzunaldi-izapide bat ere egin da, eta, horri jarraiki, interesdun guztiek espedientea eskuratu eta egoki irizten zituzten alegazioak egin ahal izan zituzten. Gainera, guztiei gonbidapena luzatu zitzairen, idatziko jakinarazpen baten bidez, adierazteko lekualdatzeak eragingo zituen langileak hautatzeko prozeduran parte hartu nahi zuten, hala bazegokion.

c) Halaber, langileen ordezkariak LPren aldaketaren espedientea igorri zitzaion, eta ez zuten inolako alegaziorik egin.

d) Abokatuen kolektiboaren artean ez dago adostasunik, ez sustatzen den lekualdatzearen egokitasunari buruz, ezta, hala balegokio, lekualdatze egiteko baldintzei buruz ere. Nahikoa da espedienteko dokumentu batzuk azaletik irakurtzea ikusteko ekimenak aldeko eta kontrako jarrerak eragiten dituela, bai legezketasunaren ikuspegitik, bai eta egokitasunaren ikuspegitik ere, eta desadostasunak eta antagonismoak sorrarazten dituela esparru pertsonalean.

7.- Baina administrazio-espediente osoa igortzearekin batera, (...) Sailaren zerbitzu-zuzendariak EPB honi jakinarazten dio behin betiko itxi eta artxibatu dela LP aldatzeko hasitako prozedura. Hark esandakoaren arabera, 2014ko martxoaren 12an ofizio bat igorri zuen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzara, honako eduki honekin:

"Eskatzen da geldi daitezela LP aldatzeko espedientearen izapideak, (...) Sailburuordetzako Zerbitzu Juridiko Zentraletako Abokatu lanpostuko 8 langile eta

Laguntzaile Nagusi postuko langile 1 Gasteiztik Bilbora lekualdatzekoak alegia, eta espediente hori itxizat eman dadila behin betiko".

Hori horrela, aipatutako egunean, bere garaian LP aldatzeko hasitako espedientea itxi eta behin betiko artxibatu zen, pertsona jakin batzuen aldeko edo kontrako inolako jarduerarik egin gabe.

8.- Espedientea itxi arte gauzatutako jardueren artean –espedientea itxi, hori geldiarazi eta behin betiko artxibatuta–, horrekin lotura izan duten kargu publikoen jardueran ez da aurkitzen EJKren oinarri diren printzipioen eta balioen kontra doan inolako jarduerarik. Gaur arte egindako jarduerak izapide-eginbide soilak izan dira, eta, prozedura amaierako ebazpena eman baino lehenago itxi zenez, espedienteak ez du ondorio zehatzik izan; hortaz, zaila da EJKren kontrako jokabiderik edo portaerarik egotea.

Aurreko guztia aintzat hartuta, EPBk honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehena.- EPB honek erabaki du onartu eta aztertu egingo duela aurkeztu zaion salaketa anonimoa, Eusko Jaurlaritzaren (...) Sailaren (...) Sailburuordetzaren zerbitzu juridiko zentraleri eragiten dien lanpostuen zerrenda aldatzeari dagokionean.

Oro har, ezin da adierazi batzorde honek salaketa anonimo guztiak aztertu behar dituenik, baina, egoera honetan, kontuan hartuta nola aurkeztuta dagoen, zer dokumenturekin batera aurkeztu den eta zer xederi buruzkoa den, EPB honek ezin du inhibititu, bestetik gabe, aurkeztutako kasua aztertzezik, salaketa nork jarri duen ez dakigulako soilik.

Bigarrena.- Espedientea itxi arte gauzatutako jardueren artean, haiek guztiak izapide hutsak izaki, ez da aurkitzen EJKren kontrako jarrerarik edo portaerarik.

Hirugarrena.- Akordio hau ezin da jakinarazi salaketa anonimoa delako, baina, halere, EPB honek hartutako gainerako erabakiak bezala, www.euskadi.net helbidean argitaratuko da (Herri Administrazio eta Justizia Saila, Etika Publikorako Batzordea).



Arantza Tapia Otaegi
Etika Publikorako Batzordeko presidentea

Gasteizen, 2014ko maiatzaren 6an.